—Jo, ba uste dut ez dakidala nondik hartu behar ditudan… —esan zion Patxiri.

—Hara, eskua soka azpitik pasatu eta bastoia hartzeko soka ere hartu. Horrela, begira.

Junek Patxik esandakoa egin zuen.

—Hori da, oso ondo. Kontuan izan bastoiek bultza egiten lagunduko digutela, baita orekari eusten ere.

—Ados!

—Botak ondo lotuta dituzu, ezta? Galtzerdiak zimurrik gabe eta hori guztia…

—Bai, bai, eroso sentitzen naiz.

Jarraian, eskiak elur gainean nola jarri behar zituen azaldu zion, zein posiziotan jarri behar zituen, bastoiekin zer egin behar zuen, orkatilak, belaunak eta mokorra nola flexionatu behar zituen… Dena kontatu zion ekintza guztiak egiten zituen bitartean.

—Ulertu duzu? —esan zion halako batean.

—Zer? Eeee…. Bai, bai.

—Oso ondo, ea ba, ekin.

Une horretan blokeo izugarria sentitu zuen Junek. Ekin? Zer esan nahi zuen? Azalpen horiek guztiak gauzatu behar zituela berak? Eskiatzen hasi behar zuela? Nola?

—Baina… ez dakit nondik hasi —aitortu zion neskak.

—Ea, pausoz pauso egingo dugu. Lasai.

Pazientzia handia zuen Patxik. Berriz ere azaldu zizkion pauso guztiak, banan-banan, eta oraingoan, esan ahala, Junek berak errepikatu egiten zituen. Ohartu zenerako, behar bezala zegoen eskien gainean.

—Orain bai —esan zion monitoreari.

—Prest eskiatzeko? —irribarrez, Patxik.

—Super prest!

—Poliki, ados?

—Bai, mesedez.

—Ea, ba, goazen!

—Ai, ama…

Beldurrak jota, baina pauso txikiak emanez hasi zen June, Patxi ondo begira zuela. Zertan ibiliko ziren besteak? Gustura zegoen monitorearekin, baina nahiago luke besteekin egon, haiek bezala eskiatu eta haiekin barrez lehertu.

—Ondo zoaz, June? —galdetu zion Patxik. Junek buruarekin baietz erantzun zion—. Primeran! Abiadura azkartuko dugu pixka bat…

Gero eta segurtasun handiagoarekin ari zen eskiatzen, oraindik ere beldurrez, baina gero eta lasaiago. Haizeak hotz jotzen zuen eta laino beltz xamarrak zerua estaltzen ari ziren. Ekaitza zetorrela zirudien.

Bitartean, Danel, Luken, Eneko, Enara eta Eider gozatzen ari ziren. Pista zailenetara igo ziren teleaulkian eta goitik ikusten zen paisaia ikaragarri ederra zen.

—Zenbat maite dudan mendia elurtuta dagoenean —esan zuen, pozez gainezka, Enarak.

—Ederra da, bai. Halere, nik nahiago dut udan mendira igo eta errekaren batean bainatu —Eiderrek.

—Bua, plan mundiala da hori! Izerditan igo, eguzkitan, eta ur izoztuetan biluzik freskatu! —gaineratu zuen Lukenek.

—Zuek jota zaudete —esan zien Danelek—. Mendira eguzkitan igotzea infernura joatea da, eta ur izoztuan bainatzea zoroena.

—Maite dut zoroa izatea —harro, Lukenek.

—Zer? Jaitsiko gara? Ea nor iristen den lehena! —bota zuen erronka Enarak.

—Eneko txapeldun!

Sigi-saga hasi zen futbolaria, lehena iristeko irrikaz. Lehiatzen ohitua zegoen, eta irabaztea gustatzen

zitzaion. Atzetik Enara, Eider, Luken eta Danel, zein baino zein abiadura biziagoan, haize hotzak masailak ferekatzen, zeru beltzari gehiegi erreparatu gabe, norgehiagoka hartan lehenak iristeko lehian gustura. Naturaz eta lagunarteaz disfrutatuz.

Garazi ez bezala.

—Hobe dugu lehenbailehen bueltatu —esan zion Markelek.

—Dozena bat aldiz esan didazu gauza bera.

—Ez didazu kasurik egiten, ordea.

—Esan dizut joateko zeu. Nik oraindik gehixeago ibili nahi dut.

—Ikusi al duzu zerua nola dagoen?

—Ez dut uste oraindik elurrik egingo duenik.

—Ezetz? Eta zu bezalako meteorologo batek noiz kalkulatzen du hasiko dela trumoia?

Garazik ez zion erantzun, eta Markel geratu egin zen neska urruntzen ikusi zuen bitartean. Halako batean zerbait arraroa entzun zuen eta ikaratu egin zen.

—Zer izan da hori? —galdetu zion bere buruari, belarriak erne.

Berriz entzun zen zarata. Zaunka baten antza zuen doinua zen hura.